



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUNAREN SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración
Ambiental

EBAZPENA, 2025eko urriaren 31koa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Zugastietan trenbidea bikoizteko Plan Bereziaren (Zornotza-Bermeo linea) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2025eko uztailaren 15ean, Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriaren Sailak eskabidea aurkeztu zuen, “Zugastietan trenbidea bikoizteko Plan Bereziaren (Zornotza-Bermeo linea)” ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egin zezan, bat etorritz Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu zituen: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskineko formularioa.

Ingurumen-organoak bete egin du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan jasotako kontsulta-izapidea, zeina 2025eko ekainaren 13an jarri baitzen abian. Emaitza espedientean dago jasota. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriaren Sailari jakinarazi zitzaion izapide-prozesuaren hasiera.

Halaber, espedientean jasotako agiriak eskuragarri egon ziren Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egokitzat jotzen zituen oharrak egiteko.

Txostenak jasotzeko indarrean dagoen legedian ezarritako epea bukatuta eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da ingurumenean efektu adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarria sustatzeko.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta eduki beharko dute Administrazio publiko batek hartutako II.A eranskinean zerrendatutako planek eta programek, bai horien aldaketek eta berrikuspenek, eta horiek egitea legedo erregelamendu-xedapen batek edo Gobernu Kontseiluaren akordio batek eskatzen badu, baldin eta etorkizunean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen badute eta aipatutako eranskinaren 6. apartatuan jasotako gaietako bati buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua ezartzen du plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasiko dela ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztuz, kontsulta egin ondoren ukitutako Administrazio publikoei eta pertsona interesdunei.

Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, 18.1 artikuluan, ezartzen du zein dokumentu erantsi behar zaizkion irismen-dokumentuari hasiera emateko eskabideari; eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen aurka ez doan guztian, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharreko edukia.

Azkenik, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazteko, kontuan hartu dira ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari dagokionez abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean jasotako eskakizunak, bai eta erreferentzia-dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari dagokienez urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan, hurrenez hurren, jasotako eskakizunak ere.

Espedienteko txostenak aztertu dira, eta honako hauek guztiak ere kontuan hartu dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela eta orain arte azaldutakoari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Zugastietan trenbidea bikoizteko Plan Bereziaren (Zornotza-Bermeo linea) (aurrerantzean, Plana) ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako bakarrik eta honako baldintza hauetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena.

Trenbide-garraioaren gaitasuna hobetzeko, bereziki Bermeo-Gernika-Amorebieta trenbidearena, Amorebieta-Bermeo ETSren trenbidearen bikoizketa proiektatu da, Zornotzako geralekuaren eta Zugastietako geltokiaren (Muxikako udalerria) artean bidaiarientzako trenak gurutzatu ahal izateko, Autzaganekeo tunelaren irteera-sarreratik (4+449 KP) Zugastietako geltokira (6+598 KP). Hori guztia Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen (LAA) lurralde-plangintzak eta Busturialdea-Artibaiko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planak bultzatutako neurria da.

Amorebieta-Bermeo ETS linearen trenbidea Zugastietan bikoizteko proiektua Muxikako udalerriko lurzoru urbanizazinean planteatzen da, Urdaibai Biosfera Erreserbaren barruan. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako lurzoru urbanizazineko erabilerak EKZPren bidez arautzen dira, eta hori udalerriko hirigintza-plangintzaren gaitetik dago.

Proiektuaren helburua da Zugastietako trenbidea bikoiztea (Amorebieta-Bermeo linea). Autzaganekeo tunelaren irteera-ahoa hasiko da, eta Zugastietako geltokian dagoen trenbide bikoitzarekin lotuko da. Geltoki horretan amaituko da trenbide bikoitza.

Horrela, proiektuak bazterbide bat eta plataforma bat egitea proposatzen du 5+620 eta 5+720 KPen artean, bidearen ezkerreko ertzean (bideen ipar-mendebaldeko aldean). Maniobrak egiteko hirugarren bide bat ere proposatzen da, benetako 70 m-koa, eta 15 m-ko zabalerako lan-eremu erantsi

bat. Horrez gain, kendu egingo dira Sitxesen (6+035 KP) eta Presosten (6+260 KP) dauden trenbide-pasaguneak. Era berean, BI-3332 errepidearen 675 m-ko luzerako landa-bide bat proiektatu da, 25+450 KPren parean, Oka ibaiaren eskuinaldeko Presoste auzora sarbidea emango duena. Gainera, landa-bide horretan, Oka ibaiaren ibilguaren gainetik joango den 11 m-ko luzerako egitura berri bat egitea aurreikusten da, hormigoizko estribuz eta habe prefabrikatuz osatutako taula batez osatua.

Aurkeztutako ingurumen-dokumentuaren arabera, proiektuan aurreikusitako jarduketan artean daude ibilgu-hondoa naturalizatzeko lanak, obrara sartzeko aldi baterako bideak erabat berreskuratzea eta ibaiertzetako hariztiak, zuhaixkak eta haltzadiak landatzea.

EKZPren 4.4.4.8 artikuluko –Trenbide-sareari buruzkoa (D.1.7)– 3. puntuaren arabera, horrelako azpiegiturak dagokien jabari publikoaren barnean konpontzeko edo handitzeko esku-hartzeak gauzatu nahi izanez gero, horretarako nahikoa izango da proiektu bat aurkeztea. Aitzitik, mantentze-lanetarako plataforma eta aurreikusitako eraikuntza-proiektuan proposatutako bazterbidea eta bertarako sarbidea partzialki egungo Trenbideen Jabari Publikotik kanpo daude, eta, EKZPren aipatutako artikuluko 4. puntuaren arabera, jabari publikotik kanpo handitze-lanak egiten badira, aldez aurretik Plan Berezi bat onartu behar da, EKZPren V. tituluaren horri buruz adierazitakoarekin bat datorrena, esku-hartzearen xede diren lurzoruen kalifikazioa hirigintzaren aldetik doitzeko aukera emango duena eta proposatutako aukera xehetasunez aztertu eta justifikatzen duena. Beraz, mantentze-lanetarako plataforma eta bazterbidea egikaritzeko, aldez aurretik Plan Berezi bat onartu behar da.

Gainera, trenbide-pasaguneak kentzeko eta Presostera iritsi ahal izateko, lehen aipatu den bezala, landa-bide bat proiektatu da, erreka-stoa gurutzatzeko zubi bat duena, eta erabilerak gainjarri dira, kota ezberdinetan kokatuta baitago. EKZPren 3.2.2.8 artikuluko –Erabilerak gainjartzea, kota ezberdinetan kokatuta daudelako– 5. puntuaren arabera, lur edo lursail bateko lurpean edo gainespazioan erabilerak berri bat ezartzeko, Plan Berezi bat idatzi eta onartu behar da, EKZPren V. tituluaren deskribatzen diren baldintzetan.

Horregatik guztiagatik, plan hau EKZPn ezarritako Plan Berezia idazteko beharra betetzeko idazten da, bai jabari publikotik kanpoko esku-hartzeak egin nahi direnean, bai erabilerak gainjartzea aurreikusten denean.

Planaren xedea da trenbideak bikoiztuko diren lurzoruen kalifikazio urbanistikoa doitzea eta Zugastietan trenbidea bikoizteko Eraikuntza Proiektuan garatutako aukera zehatz-mehatz justifikatzea, Urdaibaiko EKZPn hitzartutakoaren arabera. Horretarako, Plan Bereziaren eremua mantentze-lanetarako plataformara eta bazterbidera mugatzen da, baita sartzeko bidea eta Presostera sartzeko landa-bidea ere, eraikuntza-proiektuan aurreikusiak.

Egungo antolamendua kontuan hartuta, bazterbidea Trenbideen Jabari Publikoaren barruan dago (aurrerantzean, TJP). Mantentze-lanen eremua, berriz, DPFren barruan dago (zehazki, 840 m²), eta beste zati bat, handik kanpo (700 m²). DPFTik kanpo geratzen den eremua EKZPren “T1.PRT Trantsizioko Landa Paisaiaren Eremuak” azpikategorian dago. Beraz, Planak proposatzen du “T4.IS Azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko zonak” zabaltzea bazterbidearen eremuan, gaur egun “T1.PRT, Trantsizioko Landa Paisaiaren Zonak” gisa sailkatuta dauden lursailak okupatuz.

Landa-bideari eta erreka-eremuko gainjartzeari dagokienez, lurzoruen kalifikazioak egungoak izango dira, EKZPren 2.3.3.4. artikuluko 2. puntuan ezarritakoa kontuan hartuta: T4.IS. Azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko zonak. EKZPren 4.4.4.1 artikuluko 1.a) puntuaren arabera, landa-bideak “bide publiko” terminoaren barruan sartzen dira.

Plana onartzeak Zugastietan trenbidea bikoizteko (Amorebieta-Bermeo linea) eraikuntza-proiektua garatzea ahalbidetuko du.

1.1 Aukerak.

Ingurumen-dokumentu estrategikoan egindako aukeren analisiaren arabera, 0 aukerak edo “ez esku hartzekoa” aukerak indarreko plangintzari eustea lekarke. Baztertu egin da, ezinezkoa delako hierarkian gorago dagoen plangintzaren zehaztapenak garatzea (LAG eta LPP), eta horrek garraio publiko jasangarriaren eskaintza ez hobetzea ekarriko luke.

Ingurumen-dokumentuak barne hartzen ditu obra egikaritzeko aintzat hartutako aukerak, zeinen artean baitaude bikoizteko, bazterbideko eta trenbide-pasaguneak kentzeko aukerak.

Bikoizketa-aukerak:

Bidea bikoizteko, bi aukera proposatu dira. A aukera egungo bidearen eskuinaldean bikoizketa paralelo bat egitean datza. B aukeraren bidez, egungo trenbidearen trazadura aldatuko da BI-635 errepidearekiko ia ukitzaila den aldean, horma ainguratuak jarri beharrik ez izateko.

B aukera baztertu egin da, ez baita bideragarria, obrak iraun bitartean tren-zirkulazioa moztea ezinbesteko baldintza baita obra egin ahal izateko. Horregatik, A aukeraren aldeko hautua egin da.

Bazterbide-aukerak:

0 aukeraz gain, bazterbide berria Plan Bereziak eragindako zatian kokatzeko beste 2 aukera hartu dira aintzat.

1. aukeran, bazterbidea eta plataforma 6+083 eta 6+220 KPen artean kokatuta daude, bidearen eskuineko ertzean (hego-ekialdeko aldean). Zugastieta auzotik (BI-332 errepidea) iritsiko litzateke plataformara ibilgailuz, Presosteko trenbide-pasagunerako proposatutako berrezarpenarekin. Horretarako, landa-bide berri bat egingo litzateke zerrategiraino. Plataforma sortzeko lur mugimendua gutxienekoa litzateke.

2. aukeran, bazterbidea eta plataforma 5+600 eta 5+720 KPen artean kokatzen dira, bidearen ezker aldean (bideen ipar-mendebaldeko aldean), eta plataformarako ibilgailuen sarbidea Agirre auzorantz doan landa-errepidetik egiten da, zeina BI-635 eta BI-4251 errepideen arteko bidegurutzetik sortzen baita. Plataforma sortzeko lur mugimendua ere gutxienekoa litzateke.

Ingurumenaren aldetik, bi aukerak antzekoak dira, biek eragiten baitiete interes txikiko belardi higrofilo bati eta sahats-ale batzuei. Hala ere, 1. aukerak EKZPn “balio estrategiko handiko eremu” gisa zonifikatutako lursailei eragiten die, eta 2. aukerak, berriz, “trantsizioko landa-paisaiaren eremuak” kategoriari, interes txikiagokoei, eragiten die. Beraz, azkenean, 2. aukera hautatzen da, ingurumenaren ikuspegitik.

Trenbide-pasaguneak kentzeko aukerak:

0 aukera planteatzen da, zeinak eremuko bi trenbide-pasaguneak mantentzea bailekarke: Sitxes (6+040 KP) eta Presoste (6+260 KP). Trenbide-sektoreko legeria ez betetzeagatik baztertua (38/2015 Legea).

Batetik, Sitxeseko trenbide-pasagunea kentzea bikoizketaren irtenbidea hautatzearen araberakoa da.

Presosteko trenbide-pasagunea kentzeari dagokionez, bide berriko 2 aukera garatu dira, bideen hegoaldean kokatuak, Zugastietako landa-nukleoarekin lotura ahalbidetuta. Bi aukera horiek lehendik

zeuden bideetan oinarritzen dira, eta desberdinak dira Oka ibaiaren adarra den izenik gabeko ubidearen bidegurutzean. Irizpide teknikoak edo ekonomikoak direla eta, 1. aukera hautatu da.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezarriko dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; IV. Ingurumen Esparru Programaren (2020) helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Horiek indarrean jarraitzen dute 2030eko Ingurumen Esparru Programako eraldaketa-proiektuetan. Gainera, kontuan hartu beharko dira Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburuak eta printzipioak, bai eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legean zehaztutako helburuak eta printzipioak ere.

Era berean, kontuan hartuko dira Planari aplikatu behar zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek gidatuko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsiboki erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiriaren barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, eta, horretarako, irisgarritasuna sustatzea, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren bidez, mugikortasunaren bidez eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea eta ur-baliabidea modu jasangarrian erabiltzea.
- e) Habitatak eta espezieak, natura-ingurunea eta konektagarritasun ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- f) Saihetsezin gisa ebaluatutako kapital naturalaren galerak konpentsatzea, eta konpentsazio horretarako beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea
- g) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- h) Paisaia eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- i) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- j) Natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- k) Energia-aurrezpena eta -efizientzia eta energia berriztagarrien nahiz kogenerazioaren erabilera sustatzea.
- l) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien pean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- m) Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna murrizten laguntzea, arintze- eta egokitze-neurriak integratuz.
- n) Arrisku naturalak minimizatzea.

- o) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen nahiz lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduketa indartuz.
- p) Zuhurtasun-printzipioa zabaltzea natura-ondarean eragina izan dezaketen esku-hartzeetan.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-eremu garrantzitsuak.

Planaren eremua Muxikako udalerrian dago, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren barnean, eta, beraz, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren (EKZP) araudia aplikatu behar da. Zehazki, egungo trenbide-lineak okupatutako eremua honela katalogatuta dago: “T4.IS. Azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko zonak”. Bideen inguruko zonak kategoria hauetakoak dira: “T1.PRT Trantsizioko landa-paisaiako zonak”, “T2.F1 Ehuneko hogeita hamar eta berrogeita bost (% 30-45) bitarteko malda duten baso-zonak”, “T1.A1 Balio agrologiko handiko zonak” eta “B4.1 Ibai-sareko babes-zonak”.

Litologiari dagokionez, porositateagatiko iragazkortasun ertaineko gainazaleko metaketak eta kareharri hareatsuen eta pitzaduragatiko iragazkortasun txikiko tupen flyschoidearen txandakatzea hartzen dira kontuan. Eraginpeko lurzoruen ikuspuntutik, Planaren eremua Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren (aurrerantzean, LPS) antolamendu-eremutik kanpo dago; izan ere, instalazioek hartzen duten lursaila Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren barruan dago (haren antolaketa Urdaibaiko Biosferaren Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko 5/89 Legean eta bere Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean arautzen da).

Eremua «Okaren unitate hidrologikoan (UH)» dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan (ES017). Zehazki, Oka-A (ES111R046010) ur-masaren isuri-arroan dago. Gaur egungo trenbidea Oka ibaiaren ibilguarekiko paralelo doa, hainbat aldiz zeharkatuz. Gainera, eremuak Oka ibaiaren ibai-errekasto ugari ditu. Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroari dagokionez, Oka-A masa bilketa-masa bat da; Planaren eremua Oka estuarioan dago, zeina mantenugaiaren ekarpenarekiko sentikorrak diren eremuen barruan baitago, eta 3B eremuan (edo urrutiko kargatze-eremuan), Gernikako Unitate Hidrogeologikoaren babes-perimetroaren barruan. Era berean, Okako ibilgua eta haren ibaiadarrak Urdaibaiko Ibai Sarea (ES2130006) Kontserbazio Bereziko Eremuaren (aurrerantzean, KBE) parte dira, eta Oka ibaia Bisoi Europarraren Interes Bereziko Eremu gisa sailkatuta dago.

Planak antolatzen duen lurzorua «Bizkaiko sinklinorioaren» (ES017MSBT017-005 kodea) lurpeko ur-masaren gainean dago, eta, oro har, egoera onean. Eremua interes hidrogeologikoko gune batean dago. Zonak akuiferoen urrakortasun apala eta oso apala du.

Natura 2000 Sareko naturagune babestuei dagokienez, Planaren xede den eremuan Urdaibaiko Ibai Sarea KBE dago (ES2130006), Oka ibaiarekin eta haren ibaiadarrekin bat datorrena. Era berean, eremua Urdaibaiko Biosfera Erreserban dago (ES213001). Eremua ez dator bat EAEko IGL Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan sartutako interes geologikoko puntu edo lekuekin, baina 97. IGLaren eta 98. IGLaren eragin-eremuen barruan dago (Oka ibaiaren estuarioaren beheko zatia eta Oka ibaiaren estuarioaren goiko zatia, hurrenez hurren). Halaber, ez dator bat EAEko Igarobide Ekologikoen Sarearekin.

Eunis habitaten kartografiaren arabera (geoEuskadi), honako hauek osatzen dute eremua: *Pinus radiata* espeziearen baso-laboreek, hostozabal mesotrofoen baso mistoek (atlantikoak), belardi bazkatuek eta manipulatu gabeko larreek, mendebaldeko Pirinioetako eta Kantauri ekialdeko haltzen galeriek eta eraikuntza eta habitat artifizialek. Eremu horretan daude Batasunaren Intereseko Habitat (aurrerantzean, BIH) hauek: 91E0* *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* baso alubialak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) (*) eta 4030 Europako txilardi lehorrak. Ingurumen-dokumentuaren

arabera, aztertutako eremuan ez dago espezie babesturik, salbu eta eremuko hariztietan dauden gorosti-ale gazte batzuk (*Ilex aquifolium*), Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan «interes berezi»kotzat jasota daudenak. Bestalde, dokumentuak adierazten du eremuan espezie exotiko inbaditzaile batzuk daudela (*Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana*, *Buddleja davidii*, *Phyllostachys sp.*, *Crocsmia x crocosmiiflora*).

Eremuko fauna, ustez, landazabal atlantikoari lotutako espezieak, baso-espezieak eta ibaiari eta ibaiertzei lotutako espezieak dira. Planaren eremuko ibilgu guztiak Bisoi Europarraren (*Mustela lutreola*) Interes Bereziako Eremutzat hartzen dira.

Eremua Arriandi ikuseremuan dago; baso-paisaiako eremua da, eta EAEko paisaia berezien eta apartekoen inbentarioan sartuta dago (Eusko Jaurlaritzak, 2005).

Eremuko kultura-ondare babestuko elementu bakarra Olazaharreko Burdinola ustezko arkeologia-eremua da (10. fitxa), ekialdean dagoena. Eremu horretan daude, halaber, kultura-ondareko elementu katalogatugabe asko.

Eremuaren mendebaldeko zatian lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lurzati bat dago (48003-00077 kodea), zabortegeari dagokiona.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, ez da identifikatu sismikotasunaren ondoriozko arrisku handirik, SEVESO enpresak gertu egotearen ondoriozkorik edo muturreko higadura-prozesuak izan ditzaketen eremuak hurbil egoteak eragindakorik. Era berean, handik hurbil ez dago salgai arriskutsuen garraioarekin lotuta istripu-arrisku handia duen errepide nahiz trenbiderik. Eremuko zuhaitziek basosuteen arrisku handia eta oso handia dute. GeoEuskadi-ko kartografiak ez du eremuaren uholde-arriskuari buruzko daturik.

Ingurumen-dokumentuan, zaratari eta bibrazioei buruzko azterketa bat jasotzen da. Bertan, 6 etxebizitza identifikatzen dira hartzaile sentikor gisa, Planaren eremutik 500 metro baino gutxiagora daudelako zarataren kasuan, eta 75 metro baino gutxiagora bibrazioen kasuan.

- Azterketa akustikoaren arabera, soinu-foku esanguratsuen BI-635 errepidea da. Lehendik dagoen trenbidea bigarren mailako fokutzat hartzen da. Egungo egoerari dagokionez, ondorioztatzen du BI-635 errepidetik gertuen dauden eremuetan gaintitu egiten direla kanpoko Kalitate Akustikoko Helburuak (KAH), batez ere bizitegi-erabilera duten eremuekin parekatu daitezkeen eremuetan (65 dB egunez eta 55 dB gauez), bide-zirkulazioagatik.
- Bibrazio-azterketak adierazten du egun Ziritza baserrian bizitegi-erabilerako eraikinetarako bibrazioei buruzko KAHak gaintitzen direla (trenbide-ardatz berritik 13 metrora), bibrazio-indizea (Law) 75 dezibelatik gorakoa baita.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak.

Ingurumen-azterketa estrategikoan, proposamenen garapena eta ingurumenaren zaintza bateratzean arazoak ematen dituzten eremuak hauteman beharko dira. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, eremuaren harrera-gaitasuna, arrisku-eremuak eta eremu hauskor edo kalteberak ebaluatzea ahalbidetuko duena. Diagnostikoa aplikatu beharreko ingurumen-araudia errespetatuz egin beharko da, bereziki honako gai hauei dagokienez: sistema hidrológicoaren eta jabari publiko hidraulikoaren zaintza; uholde-arriskua; naturaren kontserbazioa; espezie inbaditzaileak; kultur ondarea; lurzoruen kutsadura eta kutsadura akustikoa.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsuluten izapidea amaitu ondoren, Eusko Jaurlearitzako Osasun Sailaren, Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiaren eta URAREN erantzunak jaso dira.

Jarraian, jasotako txostenetan bildutako ingurumen-alderdirik nabarmenenak laburtzen dira.

Kultura-ondareari dagokionez:

Eusko Jaurlearitzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Euskal Kultura Ondarearen Zentroak jakinarazi duenez, Qark Arqueología SL enpresak egindako azterketa arkeologikoa. proiektuak Olazarreko Burdinola ustezko arkeologia-eremuan ukitzen ahal dituen elementuak ongi biltzen ditu, kultur ondarean izan ditzakeen ondorioak identifikatuz, deskribatuz eta ebaluatuz. Ondorioztatzen du identifikatutako ondare-elementuen gaineko eragina bateragarritzat jotzen dela, baldin eta txosten horrek proposatutako neurri zuzentzaileak kontuan hartzen badira, honako hauei dagokienez:

- Ustezko eremua balizatzea.
- Ubidea makineriaren mugimendutik eta lurra erortzeko arriskutik babesteko elementuak jartzea.
- Obra luzetara egin beharko da, eta ez albotik, apurka-apurka bidetik bertatik lan eginez.
- Obren kontrol arkeologikoa, jarraipen-proiektu espezifiko bat eginda.

Nekazaritza- eta basozaintza-ondareari dagokionez:

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiak adierazi du, aurkeztutako agirien arabera, proposatutako jarduera “Parke Naturalak, Biotopoak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba” kategorian kokatutako lurzoruari eragiten dion proiektua dela, eta, beraz, plan, programa edo proiektu horiek baimentzeko adierazpenak eta txostenak, lurzoruen kategoria honetan, Urdaibaiko Biosfera Babesteko eta Antolatzeko 5/1989 Legean eta haren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean ezarritakoaren mende daudela eta Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialaren mende geratzen direla.

Osasunari dagokionez:

Eusko Jaurlearitzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetza adierazi du komenigarria dela etxebizitzak dituzten eremuak eremu garrantzitsutzat hartzea, eta ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak aztertzea, Planaren ekintza garrantzitsuenak edo esanguratsuenak adierazita (eragin-eremuko biztanleengan duten eragin negatibo/positiboaren arabera). Deskribatu eragindako biztanleria, eraikin kalteberak dauden (ikastetxeak, zentro soziosanitarioak) eta pertsonak zein eremutan egon ohi diren (parkeak, aire zabaleko jolas-guneak, etab.).

URARI dagokionez:

Uraren Euskal Agentziak ez du kontuan hartu beharreko gogoetarik egin, baina adierazi du bikoizketa proiektutik eratorritako jarduketek Agentziaren nahitaezko baimena izan beharko dutela, Okaren eta zenbait ibaiadarren ibilguten polizia-eremuaren barruan baitago. Baimen horretan baloratu eta aztertuko ditu proiektuaren zehaztapenak.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako Planaren deskribapena:
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak.
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena.
 - 1.3. Plangintza-aukerak.
2. Ingurumen-ezaugarrien zehaztapena:
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena.
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak.
3. Ingurumen-efektuak.
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa.
6. Ingurumen-laburpena.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak alderdi hauetan sakondu behar duela, jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena.

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzakeen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egiturekin eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak:

a. Azterketak barne hartuko du Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat. Gainera, azterketak laburki azaldu beharko du nola hartu diren kontuan, plana egitean, txosten honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jasotako helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xede edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapen eta aurreikuspenak, baita aplikatzekoak diren ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Erreferentzia adieraziko da hierarkikoki Planaren gainetik dauden plan edo programen onespren-egintzari eta datari dagokienez, eta zehaztuko da plan edo programa horien ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin den ala ez.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko Planaren eremuari edo xedeari

aplikatzekoak bazaizkio. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko dira Planarekin hierarkia-harremanik ez duten arau, plan eta programetan ingurumena babesteko jasotako irizpide, helburu eta zehaztapenak, hainbat eremutakoak (Europar Batasuna, estatua, autonomia-erkidegoa edo tokia), aplikatzekoak direnean.

Bereziki, eta besteak beste, honako plan eta araudi hauek hartuko dira kontuan:

Bereziki, eta besteak beste, honako plan eta araudi hauek hartuko dira kontuan:

- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZParen).
- EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- EAeko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Gernika-Markinako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (Busturialdea-Artibai).
- Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektoriala (izapidetzen).
- Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Muxikako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027).
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027).
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoa.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoarena eta Klima Aldaketarena.
- 6/2019 LEGEA, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- Foru Aldundiaren ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Bisoi Europarraren, *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) Kudeaketa Plana, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea den eta babesteko neurri bereziak behar diren aldetik.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena:

a. Planaren irismenak zehatz-mehatz definituta egon behar du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat egingo du azterketak, eta haiek lotura izan beharko dute planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketak guztiak aintzat hartuta.

Behar besteko xehetasunez deskribatuko dira Planak azkenean hartutako garapen-aukera eta haren ondoriozko jarduketak zehatzak, eta hartutako hirigintza-konponbidea justifikatu beharko da.

b. Planaren proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarriak buruzko aurreikuspena egingo da.

Azterketak, hala badagokio, Plana esparru duten eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak identifikatu beharko ditu, eta garapen-baldintzak eta proiektu horiek garatzeko unean ahalik eta kalte gutxien sortzeko jarraibideak ezarri beharko ditu.

c. Ingurumenean ondorioak izan ditzaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, garrantzia eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako Planeko ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, haren erreferentzia behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztuko da, eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, bai eta Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikuspen bat egingo da, aipatutako garapen-tresnak edo -proiektuak ingurumen-ebaluazioaren mende jartzeko aukerari buruzkoa.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe horretan bildutako informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera adierazi beharko da, baita ingurumen-eragin nabarmenak ekartzeko arriskua duten Planaren aurreikuspenak eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa erantsi beharko da, eta, gutxienez, honako hauek jasoko ditu: eremuaren mugaketa, zonakatze zehatza eta jarduketa guztien kokapena, *pdf* (geo-erreferentziatuta) eta *shape* formatuetan, berrikuspen-lana errazteko.

6.1.3. Plangintza-aukerak:

a. Azalez deskribatuko dira Plana prestatzeko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak. Aukera horiek bideragarriak izan beharko dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera eta abar. Era berean, 0 aukera edo ez esku hartzeko aukera ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, hau izango da erreferentzia: Planaren proposamenak aplikatu ezean jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-aukerak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako aukera.

d. Aztertutako aukerak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumen-egoeraren ezaugarriak.

Azterketak deskribatu beharko du zein diren ingurumenak gaur egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak, Planak eragindako eremuan. Karakterizazio horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai haien elkarreraginaren ikuspuntutik, eta ingurumenaren uneko egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eraginpeko eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horretatik hurbilen dagoen ingurunea, Planeko ekintzek ingurumen-eragin nabarmenak izan ditzaketen eremuetara mugatuta.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein diren izenburua, urtea eta egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak bilduko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena:

Honako ingurumen-alderdi hauek aintzat hartuko dira gutxienez:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta ur-puntuak, ingurune hidrikoaren inbentarioa (lurrazaleko eta lurpeko ur-masak), faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, Batasunaren intereseko habitatak, landaredia, mehatxatutako fauna eta flora espezieen banaketa-eremuak, Urdaibaiko Ibai Sarea KBEren eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba eta halako naturagune babestuak, hezeguneak, interes geologikoko lekuak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak ere, Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskuan egon daitezkeenak.

Ildo horretatik, zehatz-mehatz deskribatu beharko da hartutako antolamendu-aukerak zer landaredi eragingo dion, landare mota bakoitzaren okupazio-eremua, kontserbazio-egoera eta funtzionaltasun ekologikoa adierazita. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezieak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspuntutik interesekoa den elementurik dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei dagokienez bildu diren datu guztiak emango dira, hala nola lurpeko uren kutsadurarekiko kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketaren ondoriozko arriskuak eta aipagarria den beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak identifikatuko dira, bai eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak ere, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Arreta berezia eskainiko zaie lhoberen lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lurzatiei.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egoteko arriskua duten eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Detektatutako elementu bakoitzeko, bere garrantzia, kalteberatasuna, instrumentua eta babes-maila adieraziko dira. Halaber, kultura-ondasuna kalifikatzen eta babesten duen arau-xedapenaren erreferentzia zehaztuko da.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta

berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak:

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuetatik abiatuta, ingurumenaren arloko egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko eremuan, eta labur jasoko dira Planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku nagusiak, ingurumen-ebaluazio prozesurako giltzarriak direnak. Ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoeretan jarri beharko da arreta, bai eta kaltetuak izateko aukera duten alderdietan ere, kontuan hartuta Planak barne hartzen dituen jarduketetatik ondorioztatuko diren proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketan, detektatu beharko dira proposamenen garapena eta ingurumenaren zaintza bateratzean arazoak ematen dituzten eremuak.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera emango duena. Apartatu hori idazteko, kontuan hartuko dira, gutxienez, txosten honen 3. apartatuan aipatutako ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak eta aplikatzekoak diren araudietan eremu horietarako ezartzen diren mugak.

Kasu honetan, Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatu dezaketen alderdiak ondare naturalaren babesarekin lotutakoak dira, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren barnean dagoelako, Planaren eremuan Urdaibaiko Ibai Sarea KBE dagoelako, Bisoia Europarraren Interes Berezikoko Eremuak (*Mustela lutreola*) daudelako, hostozabalen basoak, mendebaldeko Pirinioetako eta Kantauri ekialdeko haltzen galeriak eta Batasunaren Intereseko Habitat 91E0* *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* baso alubialak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) (*) eta 4030 Europako txilardi lehorrak daudelako, jabari publiko hidraulikoaren babesarekin, kultura ondarearen babesarekin eta lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruekin. Alderdi horiek azterketan aztertuko dira.

6.3. Proposatutako Planaren ingurumen-ondorioak.

a. Apartatu honetan, identifikatu, karakterizatu eta baloratu egin beharko dira Planeko ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumenaren kalitatearen elementuetan izan ditzaketen efektu aurreikusgarriak. Planaren efektuak identifikatu eta karakterizatuko dira Planean aurreikusitako ekintzen eta kaltetuak izan daitezkeen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren arteko interakzioak aztertutakoan, baita sortu daitezkeen edo larriagotu eta areagotu daitezkeen ingurumen-arazo eta -arriskuak aztertu ondoren ere.

Karakterizazioak zehaztuko du zer-nolakoa den efektu mota; hala, honako hauek bereiziko ditu: bigarren mailako efektuak, metatze-efektuak, sinergikoak, epe laburrekoak, ertainekoak eta luzekoak, iraunkorrak eta aldi baterakoak.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza bakoitzaren ingurumen-efektuak deskribatuko dira, erreferentzia espresua eginez apartatu horretan ekintzei esleitutako kodeari.

Hala dagokionean, zehaztu egingo da zer ondorio dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Halaber, modu berezian jasoko dira herritarrengan, gizakien osasunean edo ondasun materialetan ondorio kaltegarri eta garrantzitsuak eragin ditzaketen ingurumen-efektuak.

Planari dagokionez aipatutako efektu bakoitzari kode bat esleituko zaio, eta kode hori erabiliko da efektuari erreferentzia egitea beharrezkoa den Azterketaren hurrengo apartatuetan.

Besteak beste, eragin hauek ebaluatuko dira bereziki:

- Planak Urdaibaiko Biosferaren Erreserban izan dezakeen eragina ebaluatuko da.
- Planaren aplikazioak Natura 2000 Sarean izan dezakeen eragina ebaluatuko da, Urdaibaiko Ibai Sarea KBEren kontserbazio-helburuak kontuan hartuta.
- Ebaluatuko da zer eragin izan dezakeen Oka ibaian, jabari publiko hidraulikoan eta ibilguak zaintzeko eremuan, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da.
- Ibai-ibilguetan eta haien ertzetan izan daitezkeen afekzioak aztertuko dira.
- Planean bisoi europarrari (*Mustela lutreola*) buruz jasotako proposamenen eragina.
- Era berean, obrako soberakinak eta eraipen eta birgaitzeetatik eratorritako hondakinak sortzearen ondoriozko balizko afekzioak aztertuko dira, eta arreta berezia jarriko zaie amiantoa izan dezaketen elementuei.
- Indusketetatik eta lur-mugimenduetatik eratorri daitezkeen afekzioak aztertuko dira –bai eta soberakinak sortzetik eratorritakoak ere–; bereziki, kutsatuta egon daitezkeen lekuak inbentariatuta dituzten eremuetan egiten direnean.
- Planak proposatutako antolamenduak zuhaitz-landareetan, bereziki hostozabalen baso mistoetan eta haltzadi-galerietan, eremuan dauden belardi eta larreetan dituen ondorioak karakterizatu eta baloratuko dira. Antolamenduan sartu beharreko zuhaitz-landaredia eta kendu beharrezkoa identifikatuko dira. Zehazki, aztertuko da Planak zer eragin duen hauen gainean: Batasunaren Intereseko Habitat 91E0* *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* baso alubialak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) (*) eta 4030 Europako txilardi lehorrak.
- Espezie aloktono inbaditzaileak barreiatzeko arriskua aztertuko da.
- Azterketan azalduko da Plana bateragarria den identifikatu diren eta ukituak izan daitezkeen kultura- eta ondare-intereseko elementuen izendapenetik eratorritako babes-irizpideekin. Alde horretatik, kontuan hartuko da Olazarreko Burdinola ustezko arkeologia-eremuan izan dezakeen eragina.
- Garapenak ingurunean izango duen paisaia-eragina aztertu beharko da.
- Ustiapen-fasean, inpaktuak eragin litzake eremuan jarduera handitzeak: hondakinen sorrera eta ur- eta energia-kontsumoa areagotzea, bai eta eragindako mugikortasuna ere. Ingurumen-azterketa estrategikoak eragin horiek ere aztertuko ditu.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da zenbateraino betetzen diren, aurreikusi diren erabileretan, kalitate akustikoko helburuak (KAH), Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoak. Egiatzatu beharko da etorkizunean kalitate akustikoko helburuak bete ahal izango direla planaren antolamendu-eremuan, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoari jarraituta. Ingurumen-azterketa estrategikoak informazio hau izan beharko du:

- Soinu-iturrien azterketa, arauaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Diseinu-aukeren azterketa, arauaren 39. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Kalitate akustikoko helburuak lortzeko behar diren neurrien definizioa, izapidetzen ari den antolamendu motaren arabera.

Kontuan izan behar da Plana garatzeko proiektuak trazadura berriaren bibrazioen azterketa jaso behar duela bere eragiketa-esparruan.

- Antolamenduaren eragin-eremuko biztanleriaren gaineko eraginak aztertuko dira, bai obren fasekoak, bai ustiapen-fasekoak.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko zer probabilitate duten, zenbateko iraupena eta maiztasuna izan dezaketen, eta itzulgarriak ote diren.
- Efectuen garrantzia eta espazio-hedadura.
- Seguruenik eragindako arearen balioa eta kalteberatasuna, honako hauek aintzat hartuta:
 - Naturaren, kulturaren eta paisaiaren aldetik ezaugarri bereziak egotea.
 - Ingurumen-baldintza txarrak egotea eta airean, uretan edo lurzoruan kalitate-estandarrek edo muga-balioak gainditu ahal izatea.
 - Planak zein neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, kuantifikatu egingo dira efektuak, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatutako ingurumen-faktoreen egoeran gertatutako aldaketan datu neurgarrien bidez. Hala badagokio, ziurgabetasun-maila adieraziko da efektu horiek aurreikustean.

c. Era berean, ahal den guztietan, efektuak modu kartografikoan lokalizatuko dira, eta, era berean, ahalegina egingo da gerta daitezkeela aurreikusten den plan edo programaren faseekin lotzeko.

d. Adieraziko da detektatutako efektua eragingo duen ekintzak eskatzen duen Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan sartzea, eta, kasu bakoitzean, eragindako plangintza-tresna azalduko da.

e. Horrela deskribatutako ingurumen-efektuak hierarkizatu egingo dira, haien garrantzi erlatiboa nabarmenduz.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.

a. Apartatu honetan, Azterketaren 6.3 apartatuan zehaztutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Hartzen diren neurriek bermatu beharko dute ez dela sortuko ingurumen-efektu nabarmenik Planean ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta detektatutako ingurumen-arazoan aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 apartatuan identifikatutako ondorioekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, neurri hauek zehaztuko dira:

- Planaren eremuan natura-ondarea behar bezala babesteko eta kontserbatzeko, plangintzak aintzat hartuko du Bisoi Europarraren Kudeaketa Planetan xedatutakoa¹.

Ondorioz, Plan Partzialaren araudiak Bisoi Europarraren Kudeaketa Planaren 11. artikuluan xedatutakoa betetzeko beharra jasoko du. Bertan jasotzen denez, Kudeaketa Planari loturiko baimenen edo emakiden administrazio-prozeduretan, bai eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioetan ere, jarduketek eta proiektuek espeziearen gainean eta haren populazio-dinamikan izan ditzaketen eraginak eta inpaktuak aztertzeko, diagnostikatzeko eta baloratzeko beharrezkoak diren txostenak eta azterketak jasoko dira. Habitata eta espeziea beharrezkoak diren baldintzetan mantentzera zuzendutako babes-neurriak jasoko dituzte txosten eta azterketa horiek, baita habitata leheneratzera zuzendutako zuzenketa-neurriak ere, habitatak espeziearen gutxieneko eskakizunak betetzen ez dituen kasuetan.

- «Ingurumena eta paisaia leheneratzeko plan» bat idatzi beharko da, Plana gauzatzearen ondorio guztietarako (aurrekontua barne).

Leheneratze-planak Plan Bereziaren garapenarekin lotutako proiektuan jasotako landareztatzea definitzeko proposamena jasoko du. Hauek dira: ibilguren hondoa naturalizatzea, obrara sartzeko aldi baterako bideak erabat berreskuratzea eta ibaiertzetako hariztiak, zuhaixkak eta haltzadiak landatzea.

Leheneratze-planean leheneratu beharreko azalerak, erabili beharreko espezieak, aurrekontua eta abar zehaztuko dira. Erriberako landaredia indartzeko neurriak sartuko dira, bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) populazioak hartzeko potentziala handitzeko.

Landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* edo beste batzuk. Bestalde, hala badagokio, neurriak hartuko dira espezie horien aleak deuseztatzeko eta haien hedapena saihesteko.

Eremu horiek diseinatzeko zehazten diren irizpideek, haiek ezartzea bermatzeko modu gisa, bikoizketaren egikaritze-proiektuaren eremuko araudi partikularrean agertu beharko dute.

- Obrek aldi baterako eragindako eremuak eta esku-hartzerik egin gabe geratuko diren eremu libreak landareztatzea aurreikusiko da, bertara egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta.
- Gainazaleko uren kalitatea babesteko neurriak garatuko dira, kontuan hartuta obrek gainazaleko sistema hidrologikoari eragin diezazkioketen kalteak.
- Kultura-ondarea babesteari dagokionez, Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa hartuko da kontuan.

¹ 118/2006 Foru Dekretua, ekainaren 19koa. Horren bidez, Bisoi Europarraren —*Mustela lutreola* (Lineo, 1761)— kudeaketa-plana onartzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea baita eta babesteko neurri bereziak behar baititu. (2006/07/06ko BAO).

Olazarreko Burdinola ustezko arkeologi aldeari dagokionez, Euskal Kultur Ondarearen Zentroarekin adostasunean, hurrengo neurri zuzentzaileak hartuko dira:

- Ustezko eremua balizatzea.
 - Ubidea makineriaren mugimendutik eta lurra erortzeko arriskutik babesteko elementuak jartzea.
 - Obra luzetara egin beharko da, eta ez albotik, apurka-apurka bidetik bertatik lan eginez.
 - Obren kontrol arkeologikoa, jarraipen-proiektu espezifiko bat eginda.
- Neurriak ezarriko dira sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko, arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera.
 - Lurzorua kutsa dezaketen jarduketak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurzati-taketako jarduketek, hala nola indusketek eta lur-mugimenduek, ekainaren 25eko 4/2015 Legea bete beharko dute, baita ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretua ere.
 - Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuak lortzeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusitako kontuan hartuta.
 - Neurriak ezarriko dira garapenaren energia-aurrezpena eta -efizientzia, mugikortasun jasagarria eta energia berriztagarrien sustapena bultzatzeko.
 - Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenarekin bat etorriz, klima-aldaketan izan lezakeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak barne hartuko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Xede horrekin, lhobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: *Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21 lan-koaderno* eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua, klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*. Era berean, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legean hirigintza-plangintzari dagokionez adierazitako neurriak bultzatuko dira.
 - Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, Plana gauzatzeko proiektuak klima-aldaketaren aurrean pixkanaka eta erresilientziaz egokitzeko beharrezkoak diren neurriak kontuan hartuta diseinatuko dira. Adibidez, klima-aldaketara egokitzeko eta «bero-uharte efektua» murrizteko helburuarekin, ingurunea eta garapenak hartzen ez dituen espazioak naturalizatzeko prozesuak sustatuko dira.

c. Adieraziko da Planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da Planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa.

a. Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta bertan Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horiek honako alderdi hauek kontrolatzeko izango dira:

- Planak ingurumenean dituen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo zuzentzeko aurreikusitako neurriak behar bezala inplementatzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana ezarri aurretik dauden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeak ingurumenean eragingo dituen ondorioak egiaztatzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak lehenbailehen identifikatzeko, eta horiek saihesteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Prebentzio- eta zuzenketa-neurri gehigarriak hartzeko beharra detektatzea Plana gauzatzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta bat etorriko dira Azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak Azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, baita kasu bakoitzean datuak biltzeko aldizkakotasunaren eta erabiliko diren metodoen proposamen zehatz bat ere.

6.6. Ingurumen-laburpena.

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola bete diren Azterketaren 6.1.1 apartatuan deskribatutako ingurumen-babeserako irizpide, helburu eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zein den Planak etorkizunean ingurumenean ondorio adierazgarriak izateko probabilitate-maila, eta behar bezala argudiatuko da, egiaztatzeko proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero ez dela oso gertagarria ondorio adierazgarri horiek jazotzea eta, beraz, ez dagoela Planaren garatzeko eragozpenik. Ondorio hori oinarritzeko, Azterketaren gainerako ataletan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horrekin batera, beharrezkoa den informazio grafikoa aurkeztu beharko da, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen laguntzeko, edo informazio hori erraz eskuratzeko beharrezkoak diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Izapideak: jendaurreko informazioa eta kontsultak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo substantiboak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 egun balioduneko epean.

Era berean, organo substantiboak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa betetzeko, gutxienez, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu diren administrazio publiko ukituen eta interesdunen eskura jarriko ditu Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter ditzaten. Hona hemen egindako kontsulthen zerrenda:

- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordeztza. Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua.
- Muxikako Udala.
- Ekologistak Martxan Bizkaia.
- Recreativa Eguzkizaleak (Eguzki).
- Áncora elkarte.
- Zain Dezagun Urdaibai.

8. Agiriak aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoen espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulthen emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulthen emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta agiriak entregatzeko, behar bezala bete beharko dira Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko dira. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragai, esteka honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. – Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriaren Sailari jakinaraztea.

Hirugarrena. – Ebazpen hau Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 31.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
Nicolas Garcia-Borreguero Uribe.